



FATXADAK KONPONTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2010/10/25ean

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010/12/31n

FATXADAK KONPONTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea da fatxadak konpontzeko diru-laguntzak arautzea.

2. artikulua.

Laguntza hauen bidez, Bergarako udalerrian dauden eta etxebizitza-erabilera edo erabilera mistoa duten eraikinetan balio monumental, historiko arkitektoniko eta estetikoak zaharberritu, birgaitu, babestu eta suspertzera zuzendutako jarduketak sustatu nahi dira.

3. artikulua.

Ordenantza honen helburuetarako, honako jarduketa hauek izango dira babesgarriak: Bergarako udalerrian dauden eta etxebizitza-erabilera edo erabilera mistoa duten ondasun higiezinaren fatxadetan egiten diren interbentzioak.

4. artikulua.

Ordenantza honen helburuetarako, higiezinak honako kategoria hauetan sailkatu dira:

A kategoria: Hemen ondasun higiezin hauek sartzen dira:

- * Monumentu Multzoetan dauden ondasun higiezinak, betiere monumentu-multzo horiek Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Katalogoko zerrendan BA-1-A mailan espresuki sartuta egotekotan.
- * Monumentuak. - Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Katalogoko BA-1-B maila.
- * Euskal Kultur Ondarearen inbentario nagusian inskribatu edo sartu direlako Kultur Ondasun izendatuta dauden ondasun higiezinak. - Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Katalogoko BA-2 maila.
- * Euskal Kultur Ondarearen inbentario nagusian inskribatzeko edo sartzeko eta, horren bidez, Kultur Ondasun izendatzeko espedientea hasita duten ondasun higiezinak. - Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Katalogoko BA-3 maila.
- * Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kultur Ondasun izendatzeko proposatzen diren ondasun higiezinak —nahiz kalifikazioaren bitartez, nahiz Euskal Kultur Ondarearen inbentario nagusian inskribatuz—. - Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Katalogoko BA-4 maila.

Kategoria honetan sartzen diren higiezinei honako koefiziente ponderatzaile hau aplikatuko zaie: 1,20.

B kategoria: Hemen ondasun higiezin hauek sartzen dira:

- * Udal mailako babesa duten ondasun higiezinak. - Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Katalogoko BA-5 maila.
- * Udal mailako babesa duten elementu bereziak dituzten ondasun higiezinak. - Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Katalogoko BA-6 maila.
- * Hirigune Historikoko Monumentu Multzoan egonda, Katalogoak jaso ez dituen ondasun higiezinak, baldin eta ez badira 96/2003 Dekretuak diskordantetzat hartu dituenak (apirilaren 29ko 96/2003 Dekretuaren bitartez, Bergarako Hirigune Historikoa Monumentu Multzoaren kategoriako Kultur Ondasun deklaratu zen).

Kategoria honetan sartzen diren higiezinei honako koefiziente ponderatzaile hau aplikatuko zaie: 1,00.

C kategoria: Hemen sartzten dira Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Katalogoan ez dauden ondasun higiezinak.

Kategoria honetan sartzten diren higieziei honako koefiziente ponderatzaile hau aplikatuko zaie: 0,80.

Kategoria honetako eraikinetan, guztizko azalera kalkulatzeko ez dira kontabilizatuko honako azalera hauek: bistako adreiluz eraikitako paramentu bertikalak nahiz horizontalak, eta plakazko estaldurak (aplakatuak) baldin eta zeramikazko plakatxoez, lauza txikiez (losetak), harriz, aplakatu metalikoez, erretxina fenolikoaz edo antzeko materialez, edo material polimerikoez eta abarrez egindakoak badira.

5. artikulua.

Udal teknikarien edo/eta Udalak horretarako izenda ditzakeen erakundeen iritziz egin beharreko jarduketaren arabera, bost interbentzio-mota ezartzen dira:

Jarduketak:

- a) Garbiketa, entokatu txikiak, pintaketa eta, orokorrean, mantentze edo babes-lanak: 21,03 €/m².
- b) a) atalean jasotako jarduketez gain, entokatuak kentzea, zarpeatzea, fatxada guztiko junteatzeak, material noble gutxi batzuk sartzea, baoetan ukituak egitea, teilatu-hegalak konpontzea, zurajea bateratzea, etab.: 45,07 €/m².
- c) a) eta b) ataletan zehaztutako jarduketez gain, elementu degradatzaileak eraitsi edo botatzea, baoak aldatzea, teilatu-hegalak ordezkatzeta, zurajea guztiz berritzea, etab.: 90,15 €/m².
- d) Elementu bitxiak, armarriak, moldurak eta abar garbitu eta sendotzeko lanak: 150,25 €/m².
- e) d) atalean jasotako jarduketez gain, elementu bitxiak zaharberritzea: 210,35 €/m².

6. artikulua.

1. Jarduketa bakoitzari dagozkion laguntzak arautu ahal izateko, Gehienezko Aurrekontu Babesgarria (GAB) ezartzen da. GAB hori kalkulatzeko, fatxada bakoitzean orokorrean egin beharreko jarduketa hartu eta horri gehitu egin beharke zaio elementu bitxietan egin beharreko jarduketa —halakorik balego behinik behin—. Aurrekontua egiteko, neurketa-irizpide moduan "zinta korritua" erabiliko da, baoak eta elementu bitxiak kendu gabe. Neurketatik aterako diren zenbakiak hartu, interbentzio-mota bakoitzerako 5. artikuluan ezarritako diru-kopuruekin biderkatu, eta horrela aterako da aipatutako GAB.

Obra egiteko (Udal teknikarien edo/eta Udalak hartarako izenda ditzakeen erakundeen irizpenei jarraituz egin beharreko obra, hain zuzen) enpresek edo gremioek aurkeztuko dituzten aurrekontuak (BEZ barne) hartu eta GABarekin konparatuko dira; ondoren, bietatik baxuena aukeratuko da, kopuru horri lansari profesionalak gehitu (halakorik balego), eta horren emaitza Aurrekontu Babesgarria (AB) izango dugu.

2. Emango den diru-laguntza honela kalkulatu da: ABaren % 25a hartu eta Ordenantza honetako 4. artikuluan arabera eraikinari dagokion koefiziente ponderatzailearekin biderkatuko da.

Ordenantza honetako 5. artikuluko d) eta e) ataletan deskribatzen diren jarduketetarako, gutxieneko 150,25 euroko laguntza ezartzen da, betiere kopuru horrek jarduketa-kostuaren % 100a ez gainditzekotan.

3. Beste erakunderen batzuk ere helburu berarekin eta eraikinarentzat orokorrean edo/eta eraikinaren elementu bitxientzat diru-laguntzak emango balituzte, diru-laguntza hori(ek) kontuan hartuko d(ir)a udal diru-laguntza kalkulatzeko; izan ere, beste erakundeen eta udalaren

diru-laguntzen baturak ezin izango du gainditu artikuluko honetako 2. puntuaren ezarritako irizpidea aplikatuz ateratzen den kopurua. 3. puntu honetan xedatutako ondorioetarako, kanpo geratzen dira Ondare Urbanizatua eta Eraikia Zaharberitzeko Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak eman ditzakeen diru-laguntzak.

4. Beste erakunde batzuk emandako diru-laguntzak kontuan hartuta artikuluko honetako 2. puntuaren ezarritako irizpidea aplikatuz ateratzen den kopurua gaindituko balitz, ez da udalaren diru-laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

7. artikulua.

Laguntza hauek eskatzeko interesa dutenek obretarako udal baimena eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioarekin batera diru-laguntzaren eskaria ere aurkeztu behar dute, eta baita beste erakundeei eskatutako edo horiek emandako laguntzen fotokopia ere. Ez bazaio eskatu laguntzarik beste inongo erakunderi, nahikoa izango da hori adierazten duen zinpeko aitortpena aurkeztea.

Eraikinaren jabeak bat baino gehiago badira, eskaera horietako batek egin beharko du jabeekideen izenean.

Agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da antzemandako akatsak zuzentzeko; eta hori bete ezean, besterik gabe artxibatu egingo da espedientea.

8. artikulua.

Bergarako Udalak obra-baimena emateko egintza berean zehaztuko du jarduketara horrek zenbateko diru-laguntza jasotzeko eskubidea ematen duen.

Diru-laguntza behin obra bukatutakoan ordainduko da, udal teknikariek edo/eta Udalak hartarako izenda ditzakeen erakundeek obra zuzen eginda dagoela egiaztatu ondoren, alegia. Horretarako, udaletxean honakoak aurkeztu beharko dira: fakturak; beste erakunde batzuek diru-laguntzak emateko edo ukatzeko hartu dituzten erabakiak, laguntza horien zenbatekoa zehaztuz; eta transferentzia zein kontu-zenbakitara egitea eskatzen den.

Diru-laguntzak bertan behera utzi ahal izango dira baldin eta obrak ez badatoz bat ebaluatzen erabili ziren jarduketara-irizpideekin.

Proposatutako laguntzak ezingo dira gehitu obretarako aurreikusitako kostuaren gehikuntzaren arabera, ez bada behintzat gehikuntza hori hasieran aurreikusi gabea izan baina Udalak proposatutako obren ondorioz sortutakoa dela.

Diru-laguntza hauek jasotzen dituzten eraikinek ezin izango dute jaso kontzeptu beragatik beste udal laguntzarik 10 urtetik beherako epean.

9. artikulua.

Laguntzak emateko orduan, eskaerak aurkezteko ordena jarraituko da zorrotz.

10. artikulua.

Ordenantza honetan jasotako helburuak bete ahal izateko, Bergara Udalak urtero diru-kopuru bat izendatuko du, aurrekontuek ematen duten aukeraren arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak urtero erabakiko du obrak diruz laguntzeko aurrekontu hartatik zein portzentaje erabiliko den Ordenantza honen 4. artikuluan jasotako ondasun higiezin hiru kategorietako bakoitzean. Portzentaje-banaketa hori urte bakoitzeko urriaren 31ra arte egongo da indarrean, eta egun horretatik aurrera Tokiko Gobernu Batzarrak aldaketak egin ahal izango ditu, kategoria bakoitzari esleitutako kopuruen gerakinak berriz ere banatuz.

Urteko diru-izendapena agortu ondoren, onartutako baina ordaindu gabeko diru-laguntzak hurrengo urteko aurrekontua onartutakoan ordainduko dira, aurrekontuetan horretarako jasotako partidaren kontura.

11. artikulua.

Obrak obra-baimenaren erabakian zehazten diren epeetan bukatu beharko dira, Udalak epe-luzapena onartzen duen kasuan izan ezik.

12. artikulua.

Datuak ezkutatu edo faltsutuz gero, horrek laguntzak jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

13. artikulua.

Ordenantza hau GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hogeit hamar eguneko epean jarriko da indarrean.